



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Katalunia: urratsez urrats, egunez egun

GERTATU DA, gertatzen ari da, hobeto esanda. Horren grina handia sortu zuten hauteskundeak egin dira, autonomikoak ala plebisztarioak, auskalot! Botoak zenbatu dira, herriaren erantzuna eta nahia interpretatu eta bete, besterik ez da gertatzen. Hor dago, noski, oraingo erronka, eta ez da nolana hikoia, ez.

Emaitzak sobera ezagutzen ditugu; buruz dakizkigu. Normalean gertatzen den moduan, ez dira emaitza “garbiak”, hau da, negoziatzera behartzen dute eta hori ez da beti alderdiek espero zutena. Gainera, kopuruak garbi badaude ere, oso interpretagarriak dira eta, kasu honetan, bereziki, nork bere irakurketa egin du:

– Orain gutxi arte hauteskunde arruntak zirela aldarrikatu dutenek, independentziaren aldekoek galdu dutela diote.

– Independentziaren alde zeudenak jabetu dira gauzak ez direla horren errazak.

– Beste arlo batean mugitu direnek –arlotan sozialean bereziki– ez dakite non kokatu diren, baina ohartuko ziren, zalan-tzarik gabe, beren aldeko bozak eskuz esku eta interpretazioz interpretazio dabil-tzala.

– Askok onartzen dute erabakitze-ko eskubidearen alde gehiengo handia dagoela.

nahi izan; ez du beste aukerarik eman. Beraz, ez da ez egokia, ez zuzena, ez leiala ere orain horrelako irakurketak egitea.

Bestalde, kanpaina ere bitxia izan da. Bitxikeria asko gertatu badira ere, nik larrienak aipatuko ditut: lehena, Mas presidentea eta beste bi pertsona inputatu gisa deklaratzera deitzea 2014ko azaroak 9an herri kontsulta gauzatu nahi izateagatik, hauteskundeak egin eta bi egunera. Bigarrena, kanpainen zehar Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatzeko egin den prozesua, Kataluniako –edo beste nazioetako– agintariak euren karguetatik desjabetu ahal izateko, hain zuzen ere, legea bihurrituz eta Konstituzio Auzitegia are gehiago politizatuz. Argi dago bi erabaki horiek eragina izan dutela hauteskundeetan: ondoren gertatu delako, eta bigarrena Estatuaren eta PPren indarra eta ahalmena –legearenak– agertu dituelako.

Eta emaitza horiekin zer? Bada, argi dagoena da Junts pel Sí taldeak aurrera egin nahi duela independentziaren alde, baina pausoka. Estatu egiturak osatuz hasiera batean, eta aurrerago, independentzia aldarrikatuz. Horretarako boto gehiago behar ditu Parlamenten, CUPenak, beraz. Gainera, asmo horretan kointzidentzia handia dute. Nik ez dakit zer gertatuko den, Mas berriro ere President izango den ala ez, CUP nahiko tinko ari baita haren kontrako jarrera mantenduz. Baina ez zaio erraza izango posizio horretan jarraitzea –orain gutxiago, Mas auzitegitik pasa behar duenean–, presioak –edo iradokizunak– daudelako, Katalunian eta hemen ere bai. Azkenean, Mas presidentak murrizketa sozialak egin ditu –beste askok ere bai–, baina Kataluniako herriak kalean agertu zuen independentziaren nahia Mas berak –beste batzuekin– bideratu du politikoki eta instituzionalki. CUPEk erabaki behar du, noski, baina ez da erabaki erraza, inolaz ere. Dena den, hasitako prozesua aurrera eramatea da herriarekiko duten konpromisoa, batzuek eta besteek.

Urratsez urrats, egunez egun, beraz, arrazoi demokratikoa gauzatuz praktikasunez eta legitimitate osoz. ■

Berriro ere, hau ez da “plebiszitu” garbia izan. Herriari ez zaio aukerarik eman independentziari bai ala ez esateko; baiezkoaren aldeko botoa sakabanatu da –kontrakoa ere bai– eta ez da horrela adierazi. Baiezkoak eta ezezkoak ez dira interpretagarriak

Berriro ere, hau ez da “plebiszitu” garbia izan. Herriari ez zaio aukerarik eman independentziari bai ala ez esateko; baiezkoaren aldeko botoa sakabanatu da –kontrakoa ere bai– eta ez da horrela adierazi. Baiezkoak eta ezezkoak ez dira interpretagarriak. Baina Estatuak ez du horrelakorik